



Enplegu tasa zertxobait apaldu zen aurtengo hasieran


LANDUNAK. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOKO TASA

%51,4


BJA inkestak 2023ko lehen hiruhilekorako zenbatetsi dituen datuen arabera, Euskadin aurreko hiruhilekoan baino 2.100 landun gutxiago erregistratu ziren, enplegua zuten pertsonen kopurua 962.900 izatetik 960.800 izatera jaitsi baitzen, eta enplegua bi hiruhilekotan jarraian moteldu da. Okupazioaren jaitsiera horrek azaltzen du erregistratutako enplegu tasaren murrizketa arina (%51,4 aurreko %51,6 horren aldean). Generoaren araberrako azterketak egiaztatzen



du enplegu tasaren murrizketa oso antzekoa izan zela gizonen eta emakumeen artean: hamarren bat jaitsi zen gizonen artean eta bi hamarren, berriz, emakumeen artean. Hala eta guztiz ere, emakumeen enplegu tasak, beherakada txiki hori gorabehera, bere maximo historikoetatik oso hurbil zegoen erregistroa jaso zuen; gizonen tasa, berriz, urrun geratu zen 2007. urtearen amaieran erregistratutako balio gorenetatik (%63,9).


LANDUNAK. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANDUNAK. GIZONAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Aipatutako enpleguaren beherakadaren ondorioz, aurreko hiruhilekoan baino 2.300 langabetu gehiago zeuden eta langabezia tasa, guztira, bi hamarren igo zen, %8,5etik egungo %8,7ra. Langabezia tasa horren hazkundeak eragin handiagoa izan zuen gizonen artean, horien tasa hiru hamarren igo baitzen; emakumeena, berriz, hamarren bat baino ez zen goratu. Azkenik, egia bada ere atzeritarren langabezia tasaren gorakada moteldu egin zela, oraindik ere nabarmen gairitzen du biztanleria nazionalarena.


LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak




LANGABAEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoak



LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoak



Iturria: Eustat.